

azpeitianzer?

udal aldizkaria

139. zenbakia
2011ko maiatza



Krisiari aurre eginez



ale honetan zer?

- 3 Udal erabakiak eta oharrak
- 4 Proposamenak eta kexak
- 5 Bakardadearen kapera
- 6 Alde zaharrera sarrera
- 7 Euskara
- 8 Erreportajea
- 11 Eskolako Agenda 21
- 12 Motxean
- 14 Agenda
- 16 Telefono interesgarriak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.

Soreasu, ekainaren erdirako zabalik



- Soreasuko proiektua 2007ko urtarrilaren 18an onartu zen, herriko kultur talde guztien (27) parte-hartze eta oniritziarekin.

- Helburuak:

- Alde Zaharraren eraberritze eta sustatze plan nagusiaren barruan.

- Kulturgunea, herriko kultur talde guztientzat izango den egoitza, gunea.

- Herriko zinema eta Euskal Antzerki Elkartearen egoitza.

- Kostua: proiektuak, teknikariak, erreka desbideraketa... sartuta, 10.097.241,61 euro.

- Finantziazioa:

- Kanpotik, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak 5.226.937 euro (%51,8)

- Udalak, 4.870.304,6 euro (%48,2) inbertitu ditu 5 urtetan banatuta.

- 550 pertsonentzako lekua. Kontutan hartu behar da, auditorioak izan dezakeen tamaina txikiena duela, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du onartzen txikiagorik erabiltzen dituen irizpideen arabera.

Udal erabakiak

Apirilaren 7an Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak hauek izan ziren:

- 1.- 2008ko otsailaren 25ea, martxoaren 6an, apirilaren 3an eta 2011ko martxoaren 3an egindako bilkuren aktak onartzea.
- 2.- Urrestillako auzoaren eremua zehaztea, eta helbidean dagokion egokitzapena.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskuratzeko Zentralizatuko sistemari -Foru Kontratazioen Zentralari- atxikitzeko Azpeitiko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena onartzea (Udalaren instalakuntzak eta Kirol Patronatuak):
- 4.- Azpeitiko Udalak (udala eta kirol patronatua) bere menpean dituzten eraikuntza eta instalazioetarako ARGINDARRA hornidura kontratatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio zentralizatuko sistemari atxikitzea.
- 5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroan aurkezteko lankidetzak hitzarmena onartzea.
- 6.- Landa eskola garraiorako diru-laguntzak ematea arautzeko oinarriak onartzea. Hasierako onarpena.

Bestalde, maiatzaren 5eko Udalbatzak hartutako erabakiak hauek izan ziren:

- 1.- 2011ko apirilaren 7an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Ezintasunen bat duten pertsonentzako aparkaleku txartela arautzeko udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea.

3.- Ostalaritza eta Aisialdi jarduerak dituzten establezimenduak jartzea arautzen duen Udal-agintarauaren aldaketari behin betiko onarpena ematea.

4.- Azpeitiko "San Agustin Kultur Gunea" kultur jardueretarako etxearen kudeaketa eta ustiapenerako kontratazio espedientearen ebazpena.

5.- 2011. ekitaldirako aurrekontua onartzea.

6.- 2011. aurrekontuan 2. Kreditu Aldaketa onartzea.

7.- 2010eko aurrekontuaren likidazioa onartzearen berri ematea (Udala, Azpeitiko Euskara Patronatua, Azpeitiko Kirol Patronatua)

8.- 2011. aurrekontu 1. Kreditu Aldaketaren berri ematea.

9.- Obra, eraikuntza eta instalazioen zergaren salbuespen edo hobariak:

- a) Irisgarritasuna bermatzeko lanak
- b) Nekazaritzako lanak
- c) Arrazoi sozialak

10.- Euskalerrria 31-33ko udal-etxebizitza tasatuen behin behineko kalifikazioa.

11.- Azpeitiko eta Ingurumen Etxea museoaren arteko hitzarmena onartzea.

12 - EKOBIIDRIO hitzarmena bertan behera uztea.

Sanagustin kulturgunea Kultur Mahaiak kudeatzeko du

Azpeitiko Udalak Sanagustin kulturgunearen kudeaketa lehiaketa publikora ateratu zuen eta eraikinen gestioa Kultur Mahaiari esleitu zaiola. Kulturgunea kudeatzeko Mahaiak sortutako kooperatiba bakarrik aurkeztu zen lehiaketara, baina hala ere, Udal Kontratazio Mahaiak proposamena aintzat hartu zuten, balorazio positiboa eginez. Modu honetan, Kultur Mahaiak aurrerantzean Sanagustinen antolatutako diren ekitaldien gestioa eramango du eta arduradunen esanetan, "azken batean, Sanagustin kulturgune erreferentziala izatea nahi dugu".

Gainera, eta "kultur programazioa aberatsagoa izan dadin", ostalaritza zerbitzua ere izango dela kulturgunean adierazi dute. Bertako "ardatza kulturala" izango da eta diru iturri bezala planteatzen dute. Horrela, taberna egiteko lanak aste gutxira hasiko dituzte eta obra hauek ez dira handiak izango.

Urrestillako eremua eguneratu eta zehaztu du Udalak

Urrestillako bizilagunek egindako eskaerari erantzuna emanez, Azpeitiko Udalak Urrestillako eremua eguneratu eta zehaztu du. Udalbatzak aho batez onartu zuen apirilaren 7an izandako bilkuran eta Joxe Urbistondo zinegotziak bertan adierazi zuenez, "sentipen arazo batez gain, arazo praktikoak gertatzen ziren askotan; larrialdietarako anbulantziari deitzerakoan, hauteskundeetan bozkatzerakoan... Atzeratzen joan garen gaia da eta azkenean zuzendu egin dugu".

Urrestilla hiru gunetan banatuta zegoen orain arte; Aratz Erreka, Eizagirre eta Elisiaga. Interesatu guztiekin hitz egin eta gero, hiru auzoekin bat egin eta Urrestillaren eremua osatu da. Ondorioz, Urrestillak bere posta kodea izango du aurrerantzean, nahiz eta Azpeitiko udalerraren barruan dagoela adierazi beharko den.

Pronosamenak. kexak...



Matxinbenta

Badirudi Matxinbenta auzoko ur zikin guztiak erredera doazela zuzenean, eta bizi guztian horrela izan da. Baina kontuan izanik km/m gutxitara erreka hortako urak Ibai Eder urtegira doazela eta handik guk ur hori edaten dugula, ez zait iruditzen batere legikoa ur horiek jaso gabe egotea eta tratatu gabe urtegira joatea. Ba al dago ur horiek bilduko dituen kolektore bat egiteko asmorik? Eta baiezkoa bada, noiz?

Xabier Mujika Salegi

Santutxo

Santutxo sarrerako espaloia guztiz puzkatuta dago eta txakur-kakaz beteta egoten da.

Zebrabidea

Mesedez, zebrabide bat jarri Goiko kaleko haur parke berriko sarrera-irteeran. Autoak, bi aldeetan bideratzen dira-eta kolpean.

Pablo VI

Dudarik gabe, azken aldian Azpeitiko

zenbait kaleetan obra asko egin dute; Garmendipe, Jose Artetxe... Kaleak ederki gelditu dira. Baina ni bizi naizen kalea, Pablo VI, nahiz eta oso transitatua izan eta zentrikoa, iruditzen zait guztiz abandonatuta dagoela, a ze espaloiak ditugunak, zuloz beteak. Ea zerbait egiterik dagoen.

Loiolabideko zubipea

Loiolabideko zubipeko bidean mesedez ispiluk jarri, izan ere, tunelera sartzerakoan edo irtetzerakoan norbait badator ez da ikusten eta adibidez, norbait bizikletan edo badator, arriskutsua geratzen da.

E.A.

Soreasuko eserlekua

Orain dela hiru bat urte Soreasu Kulturguneko eraikinaren lanak hasi berritan, obran zebiltzanetako kamioi batek Soreasu auzuneko etxe bateko paretaren ondoan zeuden bi bankuetako bat puskatu zuen. Ordutik, banku bakar bat dago, argazkian ikusten den bezala. Soreasuko auzotarrok etxeko paretaren babesean atseginenez igarotako eserialdiekin gozatu eta atsedean hartzeko parada eginez, jarraitu nahi dugu. Hori dela eta, Soreasuko bizilagunak eskatzen dugu bankua jartzea berriro ere, lehen zegoen lekuan.

Soreasuko bizilagunak



Edukiontzien egoera

Basuren kontainerren egoera benetan penagarria da. Oso gaizki daude, zaharrak dira, ez dira garbitzen etabar. Adibidez, Euskal Herria 9 etxearen parean dagoenaren egoera lotsagarria da. Seguraski, udaletxeak esango du dirurik ez dagoela. Lorak aldatzeko eta jardinak zaintzeko itxuraz nahiko diru badago, eta azkenean zertarako? Jarinak txakur-rron komun publikoak besterik ez dira. Txakur-rron jabeek duten aurpegia (gehienak) oso handia da; bestaldera begira ari direnean, disimulatzen, beraien txakur maiteek "oparia" lagatzen dute. Isunak jartzen hasi eta orduan jabeek ikasiko dute edukazio pixka bat. Kontainerrekin itzuliz, ez daude denak aldi berean aldatu beharrik, baina ez litzateke gaizki egongo pixkanaka aldatzen joango balira.

Padeleko pistak

Padeleko pistak estali beharko lirateke euria egiten duenetan ere jolasteko. Gainera, lur artifiziale ez litzateke izorratuko.



www.azpeitia.net



Sartu zaitez **www.azpeitia.net** udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- Udal albisteak uneoro ezagutzeko.
- Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzeko.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezak on-line erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.



Kepa Susperregi, Maria Jesus Aranburu, Julian Eizmendi eta Pedro Etxebarria aurkezpenean.

Errenazimenduko altxorra, herriari zabalduz

Bakardadearen Kapera gizarteratzeko helburua agertu dute arduradunek

herrian ditugun altxor desberdinak ezagutaraztera ematea da Udalaren helburuetako bat eta azpeitiarrek ezagutu beharreko harribitxi horien artean, Soreasuko Sebastian Donearen parrokiaren baitan kokatzen den Bakardadearen Kapera aurkitzen da. Horrela, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara diputatuak eta Julian Eizmendi Iraurgi Lantzeneko presidentek kapera gizarteratzeko hitzarmena sinatu zuten apirilean.

“Ondare artistikoa sustatzea da Azpeitiko eta Azkoitiko Iraurgi Lantzen garapen agentziaren asmo nagusienetakoa eta kasu honetan, Errenazimendu garaikoa”, esan zuen Eizmendik.

Bakardadearen Kaperak jatorrian zuen itxura berreskuratu du 2002 eta 2006 urteetan egindako birgaitze eta

zaharberritze lanei esker. Era berean, horma-pinturaz osatutako dekorazioaren zati handi bat azaleratzea lortu zen. Kaperaren balio historiko-artistikoa eta ondare interesaren jakitun, Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan egindako lanak dokumentatu eta birgaitze eta zaharberritze obrei buruzko ikus-entzunezkoa prestatu zuen.

“Hitzarmen honek esan nahi duena zera da, orain arte egin bada ere, kaperak ateak zabaltu behar dituela eta gizar teari erakutsi behar zaiola. XVI. mendean sortu edo eraiki zen eta orain, XXI. mendean denok gureganatu behar dugu. Mantendu, ezagutu eta zabaltu, bere eragin ekonomikoa izan dezan”, agertu zuen Aranburu diputatuak.

Bakardadearen Kaperak duen historia eta balioa agertzen duen DVD-a

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak argitaratu du, 1.500 ale atera dira guztira, eta sei euroren truke erosi ahal da Loiolako Turismo Bulegoan edota uda honetan antolatuko diren bisita gidatuen egunetan Bakardadearen Kaperan bertan.

Errenazimendu purua

Nikolas Saez Elola kapitainak aginduta eraiki zuen Domingo Rezabalek Bakardadearen Kapera eta erretoaia Andres Olabarrietak margotu zuen.

“Azpeitiko Bakardadearen Kapera altxorra da, Gipuzkoan dauden Errenazimenduko monumenturik onena eta bakarra da, Errenazimendu estilo purua duen bakarretakoa baita”, agertu zuen EHUKo Artearen Historian katedradun den Pedro Etxebarriak.

Alde Zaharrera sartzeko pibotak martxan jarriko dira laster

Udalak txartelak banatuko ditu Azpeitiko erdigunean bizi diren familien artean



alde Zaharraren peatonalizazioaren aldeko urratsak ematen darrai Azpeitiko Udalak. Azken urteetan bertako bizilagunek egindako eskaerak erantzuna jaso du eta herriko erdigunera autoz sartu ahal izateko pibotak jarri dira Enparan Dorretxe aurrean.

Maiatzaren erdialdean jarriko da sistema berria abian eta Udal ordezkariak adierazi dutenez, ezarritako pibota sistema berriak ez du aginte edo mandoarekin funtzionatuko, txartelarekin baizik.

Funtzionamendua

Hasierako funtzionamenduari dagokionez, astelehenetik ostiralera bitartean Udal liburutegi aurreko pibotak irekita mantenduko dira goizetan eta arratsaldean,

berriz, txartela beharko da. Asteburutan txartela behar izateaz gain, Erdi kalean eta Basozabal aurrean posteak jarriko dira ostiraleko 20:00etatik larunbateko 08:00etara eta larunbateko 19:00etatik asteleheneko 08:00etara arte.

“Aurrerapausu bat izango da, eta denborarekin, sistema normalkuntzara joango dela pentsatzen dugu. Gero, denborak erakutsiko digu funtzionamendu egoiena zein izango den, zerbait hobetu beharko den edo ez”, agertu du Iñaki Etxezarreta zinegotziak.

Hala ere, ordezkariak garbi utzi nahi dute erdigunera sartzeko jarriko den sistemaren helburua ez dela Alde Zaharreko kaleetan autoa aparkatzeko; “baizik ete garajera sartu, bisita bat egin

edota autoko gauzak deskargatzeko izango da, 15 minutuko denbora tartea egongo da autoa uzteko”.

Udalak emango ditu

Azpeitiko erdigunera sartzeko beharrezko izango den txartela Udalak emanango du. “Alde Zaharrean bizi diren familiek lortu ahal izango dute eta auto bakoitzeko txartel bat emango da. Autorik ez dutenek ere eskuratu ahal izango dute. Era berean, Alde Zaharrean komertzioa dutenei ere emango zaie txartela izateko aukera”, adierazi du Etxezarretak.

Behin sistema berria martxan jarritakoan, eta txartelaren erabiltzaileek arazorik badute, Udaltzaingora deitu beharko dute 943 15 13 13 telefono zenbakira.

Gazteen lokalen inbentarioa egingo du Udalak

Egungo gazte talde askok lokalak alokatzen dituzte euren txokoa izan eta aisialdiko uneak igarotzeko. Egoera honek, ordea, eragozpen batzuk sortu ditu inguruko bizilagunekin eta honen aurrean, Azpeitiko Udalak gazte lokalen inbentarioa egitea erabaki du. Udaltzaingoarekin bitartez egingo den inbentarioan gazte lokalak non dauden, norenak diren, kokatuta dauden etxepekoen administrariaren izenak bilduko dira besteak beste.

Modu honetan, egungo korporazioak inbentarioa eginda utziko dio ondorengoari, honek ordenantza egin dezan gaiaren inguruan. Izan ere, gaur egun, Udalak ez du gazte lokalen inguruko araudirik. Ordenantza izandakoan, Udalak helburu bezala finkatu dituen segurtasuna, garbitasuna, zaratak eta ordutegia arautu ahal izango dira, interesatu guztien partaidetzarekin (gazteak, lokal jabeak, etxepekoak eta Udalak).



Jaioberrien erregistroak, euskaraz

Azpeitiko Erregistro Zibilean inskribatutako haurren %64a euskaraz egin zen



O hiturak aldatzea oso zaila izaten da normalean, baina usadio horiek aldatzeko bitartekoak jarritz gero, errazago izaten da ohitura berriak hartzea. Horren adierazle garbi bezala, haur jaioberrien erregistroak dira.

2009 urtera arte erregistroak gaztelaraz bakarrik egiteko aukera zegoen, baina orain bi urte InfoReg aplikazioa ezarri zen barruti judizialetako ordenagailuetan, euskarazko inskripzioari ateak zabalduz.

Honela, aplikazio berria emaitzak hasi da lehenbiziko bi urte hauetan; 2009an (estreineko urtea) 263 jaioberri inskribatu ziren Azpeitiko Erregistro Zibilean, hauetatik 125 haurrek (%47,5) gaztelaniaz erregistratu zituzten, eta 138 (%52,5) euskaraz. Datu positiboak erabat. Hala ere, 2010 urteko emaitzei erreparatuta, are gusturago egoteko

arrazoiak daude, emaitzak hobetu baitira; erregistratutako 22 haurretatik 142 (%64) euskaraz inskribatu zituzten, eta gainontzeko 80 (%36) gaztelaniaz.

Baliabideak ematea, ordea, ez da kasu guztietan erabakiorra izaten euskararen aldeko apustua egiteko. Ikusi besterik ez dago erregistroak euskaraz egiteko aukera dagoen beste barruti judizialetan izandako datuak. Izan ere, Tolosan eta Bergaran euskarazko erregistroak igo badira ere, Azpeitiko emaitzetara ez dira gerturatzen, %53a Tolosan eta %48a Bergaran. Donostia, Eibar eta Irún bezalako barrutietan, aldiz, euskarazko erregistroek beherantz egin dute.

UEMAren topalekua

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak

antolatutako “Hizkuntz ekologia eta lurralde euskaldunak” topaketak eduki mamitsuak eta zer hausnartua utzi zuten Azpeitian.

Apirileko topaketan udaletxe eta erakunde publiko desberdinetako ordezkariak eta Euskalgintzako kideak izan ziren bertan. Julian Eizmendi Azpetiko alkateak gidaritzaren partekatuaren garrantzia oso handia dela adierazi zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntz politikaren gidaritzaren jaurlaritzak eta EUDELe dutela gaineratu zuen.

Jon Bollar UEMAko lehendakariak mankomunitatearen lorpenak azaldu zituen; udalek euskaraz funtziona dezaketela frogatzea, arlo publikoan eragitea, kontzientziazio maila handitzea edota euskarari prestigioa ematea.



Udalak ia 24.000.000 euroko aurrekontua izango du

Hauetatik 3.650.000 euro inguru inbertsioetara bideratuko dira

maiatzaren 5ean egindako udalbatzak 2011 urteko aurrekontuak onartu zituen aho batez. Modu honetan, Azpeitiko Udalak ia 24.000.000 euroko aurrekontu orokorra izango du urte honetan zehar.

Honela, Udalaren aurrekontu propioa 19.788.664,16 eurokoa izango da, Euskara Patronatuak 654.200,13 euroko aurrekontua izango du, 1.074.342,13 euro Kirol Patronatuak, eta azkenik,

Azpeitia Lantzen baltzuak 3.463.086,48 euro kudeatuko ditu.

“Bizi dugun koiuntura ekonomikoa kontutan hartuta, Udalaren egoera finantzieroa ona da, Gipuzkoako Udalaren batz bestekoa baino hobea”

“Bi hilabete luzez hitz egiten ibili gara Udaleko talde guztiak eta azkenen, 2011 urteko aurrekontuak aho batez onartu ditugu. Aurrekontu orokorraren kopurua iazkoarekin alderatuz gero, eta Azpeitia Lantzen baltzua kanpoan utzita, %0,98ko jaitsiera du bakarrik. Beraz, esan genezake kopurua mantendu egiten dela”, esan zuen Julian Eizmendi alkateak.

KRISIAREN LEGEALDIA

Azken lau urteak krisiarenak izan dira eta horrek bere eragina izan du Udalean, hala ere, egoera onean uzten dela azpimarratzen du Eizmendik.

1.- Sarrera arruntak 2007koak izan ziren onenak, 19.442.947,46 €ekin, eta oraindik ez ditugu berreskuratu. Ondorengo urteetan baxuagoak izan dira 2008an %6,8, 2009an %10, 2010ean %6,5, eta 2011rako %6 aurreikusten da. Aldiz, hainbat eta hainbat gastu korrontek etengabe gora egin dute.

2.- Krisiaren eraginak Udalak bere gain hartu ditu, ondorengoei utzi gabe. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiari 2011, 2012 eta 2013an itzuli

beharreko 1.953.956 € gordeta utzi dizkiogu ondorengo korporazioari.

3.- Nahiz eta sarrera arruntak oraindik 2007koetara ez iritsi, Udaleko aurrekontu ejekutatuak “mantendu edo zertxobait igo” egin ditugu, kanpotik ere diru asko sartu delako. Legealdi osoa krisi egoerakoa izan dugu, baina esan genezake politika antiziklikoa egiteko moduan izan garela, hau da, inbertsioak eta laguntza sozialak ez ditugu gutxitu. Eusko Jaurlaritzak larrialdietako laguntza sozialak murriztu arren, orain artekoak mantentzeko konpromisoa gauzatzen da aurrekontu hauetan”. 2007ko Udalak ejekutatuko aurrekontua 22.569.704,81

€ izan zen, eta krisiko aurrekontuen ejekuzioa, hau da, 2008, 2009 eta 2010 urteetako batz bestekoa 22.792.362,58 €koa izan da, esan bezala, zertxobait gehiago.

4.- Erratio finantzieroak: zorpetze maila, zor biziak, aurrezki garbiak, inbertsio mailak... onak dira, Gipuzkoako Udalen batz bestekoa baino hobeak.

5.- Gerakin onak: 2.935.070, 18 €ko gerakina geldituko da Udalean. “Krisi koiuntura honetan garrantzitsua da, krisia pasatzen laguntzeko, inbertitzen jarraitzeko edota laguntza sozialekin jarraitzeko balioko die ondorengoei”.

AZPEITIKO UDALEKO 2011KO AURREKONTUAK

1.- AURREKONTU OROKORRA ETA ENTITATE BAKOITZARENA

AURREKONTU OROKORRA	23.997.559,75
UDALA	19.788.664,16
EUSKARA PATRONATUA	654.200,13
UDAL KIROL PATRONATUA	1.074.342,13
AZPEITIA LANTZEN S.A.	3.463.086,48

2.- UDALEKO GASTUEN AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA

Ogasuna eta Kontuak	1.532.374,41
Hirigintza eta Ingurumena	3.790.900,00
Hezkuntza eta Gazteria	727.104,79
Kultura eta Euskara	909.670,13
Kirolak	809.033,02
Gizarte Zerbitzuak	960.920,00
Langileria eta antolakuntza	5.624.415,84
Festak	581.360,00
Zerbitzu orokorrak eta Baserriak	4.306.485,66
Alkatetza	306.000,00
Industria, Merkataritza eta Turismoa	132.900,31
Parekidetasuna	107.500,00
GUZTIRA	19.788.664,16

3.- 2010EKO AURREKONTUAREKIN ALDERATUZ (2010eko hasierakoarekin konparatuta)

	2010	2011	
UDALA (aurrekontu propioa)	19.997.826	19.788.664	-1,05%
EUSKARA PATRONATUA	646.746	654.200	1,15%
UDAL KIROL PATRONATUA	990.921	1.074.342	7,87%
OROKORRA AZPEITIA LANTZEN KENDUTA	20.764.626	20.561.473	-0,98%
OROKORRA	27.330.682	23.997.559	-12,20%



inbertsioak:

Azpeitiko Udalak izango dituen 19.788.664,16 euroetatik, 3.651.000 euro inbertsioetara bideratuko dira. Aurreikusi diren obra eta proiektu garrantzitsuenak hauek dira:



- DONE JAKUE KALEKO URBANIZAZIO LANAK EGITEN JARRAITZEKO

300.000 euro

- BIDEAK

120.000 euro

- BESTE URBANIZAZIO BATZUK

245.000 euro

- OBRAK UDAL-ERAIKINETAN

175.000 euro

- SOREASU

900.000 euro

- SANAGUSTIN

175.000 euro

- NUARBEEKO FRONTOIA

405.000 euro

- IGERILEKUA

440.000 euro

- BASERRI BIDEAK

200.000 euro



Mugikortasunaren konpromisoa hartu dute haurrek

2003-2004 ikasturteaz geroztik, Eskolako Agenda 21 egitasmoan parte hartzen ari dira Karmelo Etxegarai, Ikasberri, Iraurgi eta Urola ikastetxeak eta aurreko Garraioa eta Mugikortasuna izan dute hizpide herriko ikastetxeetako haur eta gazteek. Urte guztian zehar ekitaldi eta ekintza ugari egin dituzte gaia aztertzeko eta ondorio zehatzetara iritsi ondoren, Udaletxera joan ziren apirilaren 14ean Julian Eizmendiri

aurkezttera. Modu honetan, irisgarritasuna, oinezkoentzako espazioak egokitzea, kanpainak, arriskuak kentzea, egokitzapenak, bidegorriak eta garraio publikoaren inguruko hobekuntzak proposatu zituzten.

Guztira 27 proposamen luzatu zituzten eta alkateak banan-banan erantzun zien guztiei. Besteak beste, inguruko herrietara eta Donostiara

joateko tren berrir martxan jartzea, jendea bizikletan eta oinez ibiltzera bultzatzeko, bidegorri sarea eraikitzea eta espaloioak eta errepedeen pasabideak egokitzea, bizikletak alokatzeko aukera jartzea, zebra-bide altxatu gehiago jartzea, alde zaharreko kaleak oinezkoentzako egokitzea, edo ahal bada, espaloioak egitea edota Azpeitiko plazan dauden aparkalekuak kentzea eskatu zuten, besteak beste, ikastetxeetako haurrek.

Bizikleta, Jose Maria Geretarentzat




Jose Maria Gereta Unanuek lortu du Ingurumen sailak lantokira joateko autobus zerbitzuaren erabiltzaileen artean zozketatu duen bizikleta. Guztira, 2.000 txartel banatu ziren erabiltzaileen artean eta Geretak zuen zozketako zenbaki saritua, 1.555. Orain dela hiru urte inguru hasi zen autobus zerbitzua erabiltzen eta oso gustura dagoela adierazi du; “Autoa ez erabiltzeko hasi nintzen, gainera bazkaltzera itzultzeko oso ondo etortzen zait ordutegia. Zerbitzua oso ondo dago eta nik herritarrei gomendioa egiten diet erabiltzeko. Horrelako zerbitzurik ez dago!”

Inbertsioa ikuskatzen izan da ONCE



fundación ONCE-ko teknikari den Jose Luis Borau Jordán Azpeitian izan da Betharram eta Perretxikoko igogailuak ikusten. Julian Eizmendi alkatearekin eta Gizarte Zerbitzuetako teknikari den Eurne Zubiarekin bi eraikinak bisitatu ditu, izan ere, IMSERSONCE hitzarmenari esker, Udalak diru laguntza jaso zuen lanak egiteko. Betharrameko lanek 100.050 euroko aurrekontua izan zuten eta IMSERSONCEk 66.035 euro eman zituen, %66a. Perretxikoan igogailua jartzea, berriz, 76.739 euro kostatu zen eta hitzarmenak %50a ordaindu zuen, hau da, 38.370 euro.

Enpresen lehiakortasuna hobetuz



Urola Erdia bailarako enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektu berri bati ekingo dio Iraurgi Lantzenek eta egitasmoa maiatzaren 13an aurkeztuko du. Ekimenaren helburu nagusia lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektuak definitu eta garatzea izango da eta 2011ean abian jarriko diren jardueren artean, enpresa partaideen diagnosia egin eta etorkizunerako gomendioak egitea aurkitzen da. Arduradunen esanetan, “aukera paregabea” da enpresentzat eta parte hartzera animatu nahi dituzte.

CSN enpresa brasildarra Udalean



CSN enpresa brasildarrak erosiko ditu Alfonso Gallardok Azpeitian dituen bi plantak: Azpeitia eta Lasao. Jabe berriak izango diren ordezkariak udaletxean izan dira alkatearekin, planeamendu urbanistikoa ezagutu, enpresarekin jarraitzeko asmoa eta gidaritza egun gutxi barru hartzeko asmoa adierazi dute. “Notizi ona enpresaren etorkizunarentzat, noski, bertako lanetik bizi diren hainbatentzat”. Azken urteotan inbertsio inportanteak egin ditu instalazioetan eta Trukutxu eremua prestatzen eta garrantzitsua izan da egun gutxi barru burutuko den eskualdaketa errealtate izateko, eta etapa itxaropentsu bati ekiteko.

agenda

MAIATZA

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23/30	24/31	25	26	27	28	29



13, ostirala

SAN ISIDRO JAIK
ARATZ ERREKAN
19:30 Txupinazoa
20:00 Poteoa hoztuta daudenak
berotzeko eta dantzarako
giroa prestatzeko
21:00 Afaria. Afalordua alaitzeko,
Hitzeder eta Joseba soinu-joleak
03:00 Baratzuri zopa jana

14, larunbata

SAN ISIDRO JAIK
ARATZ ERREKAN
09:00 Itxaferoak
10:00 Mendi buelta: Izazpi-Paotxeta-
Samiño. Buelta ondoren, salda
eta haragi egosia izango dira
16:30 Mus txapelketa azkarra
Arratsalde eta gaua alaitzeko Xabier
Etxaniz eta Iñigo Galdos soinu-joleak
03:30 Baratzuri zopa

BANDA GAZTEAREN
KONTZERTUA
Lekua: Sanagustin kultur-gunean

V.TXIRRINDULARI
GAZTETXOEN
EGUNA
Ordua: 10:00etan
Irteera: Betharram

DVD EMANALDIA
17:00etan, La maravillosa
aventura de Sharpay
Lekua: Betharram Aretoa

15, igandea

SAN ISIDRO JAIK
ARATZ ERREKAN
09:00 Suziriak
12:00 Meza Nagusia, santuaren
oroimenean eta handik irtendakoan
Biterreoa. Segidan pilota partidak:
Gaztetxoaren artekoa
Estelarra helduena
14:30 Inguratzen den jendearentzat
Bazkaria Eguardia eta arratsaldea
alaituz, Xabier Etxaniz eta Iñigo Galdos
soinu-joleak 20:00 Suzko erruedak

DVD EMANALDIA
17:00etan, La maravillosa
aventura de Sharpay
Lekua: Betharram Aretoa

SANJUANDEGIKO V.
MENDI LASTERKETA
Ordua: 11:00etan
Irteera: Jose Antonio Agirre plaza

16, astelehena

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

IPIIN KONTALARIA
6 urtetik 9 bitarteko haurrentzako
Ordua: 18:00
Lekua: Liburutegia

17, asteartea

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA

Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

18, asteazkena

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

19, osteguna

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

HITZALDIA
Iraurgi Cup Kirol Klubak antolatutik
Ordua: 19:00
Lekua: Sanagustin Kultur-gunea

21, larunbata

ESKOLARTEKO XXXII.FUTBOL
TXAPELKETA FINALA
Tokia: Garmendipe
Ordua: 15:30

DVD EMANALDIA
17:00etan, Hechicero del pasado
Lekua: Betharram Aretoa

ZEAMAYS KONTZERTUAN
Ordua: 22:30
Lekua: Sanagustin Kultur-gunea

22, igandea

XX.HERRI MAILAKO
ARRANTZA TXAPELKETA
Kategoriak: alebin-infantilak



Bilkura tokia: Enparan Dorretxea
Ordua: 8:30ean

TXALINTXOKO EGUNA
Irteera: goizeko 9:00etan plazatik
12:00etan Meza nagusia
Salda eta hamaiketakoa
Trikitilariak eta txistulariak
Umeentzako jolasak

AIZKORA APOSTUA
ZEZEN PLAZAN
Tokia: Zezen Plaza
Ordua: 12:00
Partaideak: Zubizarreta VS Resano

DVD EMANALDIA
17:00etan, Hechicero del pasado
Lekua: Betharram Aretoa

23, astelehena

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

24, asteartea

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

PROIEKZIO EMANALDIA
"DOLOMITAK"
Otsoa de Alda eta Diaz de Garaio
Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa
Ordua: 21:00

25, asteazkena

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

NI ERE BERTSOLARI JAIALDIA
Lekua: Sanagustin Kulturgunea
Ordua: 18:30tik 20:30etara

PROIEKZIO EMANALDIA
"HEGOALDERA BIZIKLETAZ"
Joanes Gibelalde
Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa
Ordua: 21:00

26, osteguna

MERKATARIENTZAKO IKASTAROA
Ordua: 14:00etatik 16:30era
Lekua: EPAko egoitza

27, ostirala

BIGARREN ESKUKO AZOKA
Lekua: Udaletxe arkupean
Ordua: 17:30etik 20:00etara

EMAKUMEEN IKASTURTE
AMAIERAKO JAIALDIA
Ordua: 19:00
Lekua: Sanagustin kulturgunea

PROIEKZIO EMANALDIA
"MONT BLANC-i ITZULIA"
Ainhoa Izagirre
Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa
Ordua: 21:00

28, larunbata

GIPUZKOAKO BOLO FINALA

Lekua: Garmendipeko bolatokian
Ordua: 12:30

XOXOTeko EGUNA
9:00etan hasita, Kiroldegian
eskalada ikastaroa gaztetxoentzat

DVD EMANALDIA
17:00etan, En tiempo de dragones
Lekua: Betharram Aretoa

ELKARTASUN EGUNA

29, igandea

XOXOTeko EGUNA
Irteera goizeko 9:00etan Plaza
Nagusitik eta nahi duenak
Attolara autobuses joan
Eguardiko 12:00etan meza
12:45 hildako mendizaleen
alde lore eskaintza
Domina banaketa
Trikitalari eta bertsolariak
Umeentzako jolasak

IPUIN KONTAKETA
Haritza hitza Ari
Lekua: Urrestilan
Ordua: 12:30

DVD EMANALDIA
17:00etan, En tiempo de dragones
Lekua: Betharram Aretoa

30, astelehena

IPUIN KONTALARIA
4 urteko haurrentzako
Ordua: 18:00



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulatorioa	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Maiatzaren 6, 11, 18, 24, 27 eta 30ean.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Maiatzaren 4, 16, 21, 22, 28 eta 29an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Maiatzaren 1, 5, 10, 13, 17 eta 23an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Maiatzaren 2, 7, 8, 12, 19, 25 eta 21ean.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Maiatzaren 3, 9, 14, 15, 20 eta 26an.

